

Gazteleku

Deporte escolar

Noticias de Bizkaia

Deia

gazteleku@deia.com

Buena energía!

Casi el 90% de nuestra energía producida en España está libre de CO₂.



**HOCKEY LERROKO HIRUGARREN
JARDUNALDIA LOIUKO LAURO
IKASTOLAN** //P.2-3

**LA LIGA ESCOLAR DE NATACIÓN
VIVIO CON INTENSIDAD LA CUARTA
JORNADA EN DISTINTOS PUNTOS** //P.4-5

El stick gana adeptos



Kueto y la ikastola Lauro disputaron uno de los numerosos partidos que se jugaron durante la mañana.

Foto: Jose Sampedro

● Alrededor de 80 participantes en la jornada de combate infantil //P.6-7



● Algunos de los equipos de las jornadas de natación y hockey línea //P.8

HOCKEYA

Stickaren etorkizuna eskolan dago

Nahiz eta kirol bortitza iruditu, oso errespetutsua da

BIZKAIKO IRRISTAKETA FEDERAZIOAK ESKOLA MAILAKO HIRUGARREN **HOCKEY LERROKO JARDUNALDIA** ANTOLATU DU LAURO IKASTOLAN. BENJAMIN ETA KIMU KATEGORIETAKO TALDEEK LOIUKO KANTXA GORAINO BETE ZUTEN *Miriam Rodriguezen erreportajea Jose Sampedroren argazkiak*



"Kirola probatu beharra dago: probatzen baduzu, harrapatu egiten zaitu. Jendea gonbidatzen dugu etorri eta probatzera"

Kirol hau praktikatu nahi duten guztiek Metropolitano klubean egin dezakete, ez dago bilbotarrei soilik mugatua

DUELA urte batzuk ia inork ez zuen hockey lerro kirola ezagutzen. Zorrotzan elkarturik, Metropolitano klubeko kideak neska-mutilak erakartzeaz arduratu dira, kide gehiago lortzeko. Denborarekin, Bilboko erakunde horrek kirol hori Bizkaian ezagutarazi nahi izan zuen. Horretarako, ikastetxeetan zehar ibili zen eta Lauro ikastolan, Sestaoko Kueto ikastetxean eta Bilboko Pagasarribide eta Félix Serrano ikastetxeetan taldeak sortu ziren. "Ikastetxeetara joaten gara jarduera eskaintzera, leku batzuetan dagoeneko irristaketa taldeak badituztela aprobetxatuz. Eskola ligan parte hartzeko laguntza ematen duten monitoreak eta materiala ere eskaintzen ditugu", esan digu Aitor Gávilak, Bizkaiko irristaketa

federazioako hockey lerro batzordeko arduradunak.

Lan horren ondorioz sortu da eskolako liga. Duela pare bat denboraldi jardunaldi bat antolatuta zuten eta aurtengo sei ere egingo dira, lehen aldiz egingo den Bizkaiko Kopa barne. "Egia esan, ezin gara kexatu. Liga egituratu dugu eta partida guztiak egoitza berean joka daitezkeen lortu dugu. Pista bitan banatzen da; horrela, bi partida joka daitezke aldi berean. Partida bakoitza hiru denboratara jokatzeko da, bakoitza 10 minutukoa. Gainera, nobedade moduan, final bat egingo dugu, talde guztiek parte hartzeko", esan du.

Orain dela gutxira arte, topaketa guztiak Bizkaiko pista bakarrean jokatzeko ziren: Zorrotzako Metropolitano klubekoa. Baina Bilboko klub horrek berak gainerakoak animatu zituen beren instalazioetan zerbait antolatzera, eta horrela, Lauro ikastolak, esaterako, jardunaldi bat antolatuta zuen pasa den igandean. Bigarrena Sestaoko La Benedicta kiroldegian egin zen eta Metropolitano klubean beste bi izango dira. "Badakigu ikastetxe gehienek ez daukatela instalazio egokirik, baina kiroldegi batzuetako pistetan proba egin dugu, hala nola Sestaon, eta esperientzia oso ona izan da", azaldu du Gávilak.

Kirolaren sustapenari dagokionez, federazioak ikastetxeetako guraso elkarteak animatu nahi izan ditu partidak ikustera, ea talderen bat sortzera animatzen diren. "Kirol hau probatu beharra dago: probatzen baduzu, harrapatu egiten zaitu. Jendea gonbidatzen dugu etorri eta probatzera", esan du Gávilak.

Arazoa sortzen da haurrak insti-



tutura doazenean. Hutsune bat egoten da, eta haur mailako ligarik ez dagoenez, utzi egiten dute. "Metropolitano" etor daitezen saiatzen gara, institutuetan taldeak sortzea zaila da eta", esan digu.

Bestalde, kirol honek irudi bortitza ematen du oraindik ere, baita irristaketa hockeyaren modalitateak ere. Izotz hockeyan gertatzen diren borroken irudiak ere agertzen dira telebistan, eta hala ere, irudi distorsionatua da. hockey lerroren kasuan, errespetua eta segurtasuna dira oinarri nagusiak. "Neska-mutilek araudia, aurkariak eta arbitroa errespetatzen dituzte. Ez dugu inoiz indarkeria arazorik eduki. Entrenatzaileak Metropolitano klubetik datoz eta kirol horren espiritua sustatzen saiatzen dira. Gainera, Bizkaiko irristaketa federazioarentzat haurren segurtasuna oso garrantzitsua da. Horregatik, araudian jasota dago derrigorrezkoa dela babesak erabiltzea:

Kaskoa, zango-babesak, belarri-babesak, ukondo-babesak eta esku-larruak" esan du Aitor Gávilak.

Metropolitano klubak zazpi urte daramatza hockey lerro kategorian maila gorenean jokatzeko eta jokalariek zuen parte hartzen dute belaunaldi berrien prestakuntzan. Maila horretan dagoen Bizkaiko klub bakarra da. Kirol hau praktikatzen duten guztiek Metropolitano klubean egin dezakete, ez dago bilbotarrei soilik mugatua.

Bizkaiko federazioak amets bat dauka: hemendik urte batzuetara Euskadi mailako eskola ligaren bat antolatu ahal izatea. Hala ere, sendoa Bizkaikoa da. Urteekin, hockey lerro modalitatea hazi egin da eta ikastetxe batzuetan taldeak sortu dira. Eskura dituzten baliabideak erabiliz jardunaldiak antolatzen ere hasi dira, eta hori pozgarria izan da zale guztientzat. Etorkizuna ikastetxetan dago, beraz. Hau hasi besterik ez da egin! ●



(1) Pagasarribide umetxoer taldea. (2) Metropolitano Right taldea. (3) Metropolitano Left Taldea. (4) Pagasarribide kimuen taldea.